Elementuen suarekiko erresistentzia, sutea egotekotan, elementuek euren ezaugarriak mantenduz iraun dezaketen denboraren bidez definitzen da.

2.2.4. Babes neurriak

2.2.4.1. Emergentsia irteeren distantziamendua

DB SI dokumentuak arautzen duen bezala izango da egituraren emergentsia irteeren arteko distantzia:

Taula 12 Plantetako irteera kopurua

Número de salidas existentes	Condiciones
Plantas o recintos que disponen de una única salida de planta o salida de recinto respectivamente	<p>No se admite en <i>uso Hospitalario</i>, en las plantas de hospitalización o de tratamiento intensivo, así como en salas o unidades para pacientes hospitalizados cuya superficie construida exceda de 90 m².</p> <p>La ocupación no excede de 100 personas, excepto en los casos que se indican a continuación:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 500 personas en el conjunto del edificio, en el caso de <i>salida de un edificio de viviendas</i>; - 50 personas en zonas desde las que la evacuación hasta una <i>salida de planta</i> deba salvar una altura mayor que 2 m en sentido ascendente; - 50 alumnos en escuelas infantiles, o de enseñanza primaria o secundaria.
	<p>La longitud de los recorridos de evacuación hasta una <i>salida de planta</i> no excede de 25 m, excepto en los casos que se indican a continuación:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 35 m en <i>uso Aparcamiento</i>; - 50 m si se trata de una planta, incluso de <i>uso Aparcamiento</i>, que tiene una salida directa al <i>espacio exterior seguro</i> y la ocupación no excede de 25 personas, o bien de un espacio al aire libre en el que el riesgo de incendio sea irrelevante, por ejemplo, una cubierta de edificio, una terraza, etc. <p>La <i>altura de evacuación</i> descendente de la planta considerada no excede de 28 m, excepto en <i>uso Residencial Público</i>, en cuyo caso es, como máximo, la segunda planta por encima de la de <i>salida de edificio</i>⁽²⁾, o de 10 m cuando la evacuación sea ascendente.</p>
Plantas o recintos que disponen de más de una salida de planta o salida de recinto respectivamente ⁽³⁾	<p>La longitud de los recorridos de evacuación hasta alguna <i>salida de planta</i> no excede de 50 m, excepto en los casos que se indican a continuación:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 35 m en zonas en las que se prevea la presencia de ocupantes que duermen, o en plantas de hospitalización o de tratamiento intensivo en <i>uso Hospitalario</i> y en plantas de escuela infantil o de enseñanza primaria. - 75 m en espacios al aire libre en los que el riesgo de declaración de un incendio sea irrelevante, por ejemplo, una cubierta de edificio, una terraza, etc. <p>La longitud de los recorridos de evacuación desde su origen hasta llegar a algún punto desde el cual existan al menos dos recorridos alternativos no excede de 15 m en plantas de hospitalización o de tratamiento intensivo en <i>uso Hospitalario</i> o de la longitud máxima admisible cuando se dispone de una sola salida, en el resto de los casos.</p> <p>Si la <i>altura de evacuación</i> descendente de la planta obliga a que exista más de una <i>salida de planta</i> o si más de 50 personas precisan salvar en sentido ascendente una <i>altura de evacuación</i> mayor que 2 m, al menos dos salidas de planta conducen a dos escaleras diferentes.</p>

Araudiak bi aukera ematen ditu 50 metrotara edo 25 metrotara emergentzia irteerak kokatzea. Hau ikusita eta segurtasuna bermatzeko asmoz, 25 metrotara kokatuko dira.

2.2.4.2. Emergentzia irteeren dimentsioak

Emergentzia irteeren dimentsionamendua, araudiaren arabera egingo da:

Taula 13 Emergentzia elementuen dimentsioak

Tipo de elemento	Dimensionado
Puertas y pasos	$A \geq P / 200^{(1)} \geq 0,80 \text{ m}^{(2)}$ La anchura de toda hoja de puerta no debe ser menor que 0,60 m, ni exceder de 1,23 m.
Pasillos y rampas	$A \geq P / 200 \geq 1,00 \text{ m}^{(3)(4)(5)}$
Pasos entre filas de asientos fijos en salas para público tales como cines, teatros, auditorios, etc. ⁽⁶⁾	En filas con salida a pasillo únicamente por uno de sus extremos, $A \geq 30 \text{ cm}$ cuando tengan 7 asientos y 2,5 cm más por cada asiento adicional, hasta un máximo admisible de 12 asientos. En filas con salida a pasillo por sus dos extremos, $A \geq 30 \text{ cm}$ en filas de 14 asientos como máximo y 1,25 cm más por cada asiento adicional. Para 30 asientos o más: $A \geq 50 \text{ cm}^{(7)}$ Cada 25 filas, como máximo, se dispondrá un paso entre filas cuya anchura sea 1,20 m, como mínimo.
Escaleras no protegidas ⁽⁸⁾	
para evacuación descendente	$A \geq P / 160^{(9)}$
para evacuación ascendente	$A \geq P / (160-10h)^{(9)}$
Escaleras protegidas	$E \leq 3 S + 160 A_s^{(9)}$
Pasillos protegidos	$P \leq 3 S + 200 A^{(9)}$
En zonas al aire libre:	
Pasos, pasillos y rampas	$A \geq P / 600^{(10)}$
Escaleras	$A \geq P / 480^{(10)}$

Beraz, ateen zabalera ezin izango da 0,60 metro baino txikiagoa izan ezta 1,20 metro baino handiagoa. Eta: $A \geq P/200 \geq 0,80$

2.2.4.3. Suaren aurkako babes neurriak

2.2.4.3.1. Larrialdietako argiak:

Larrialdietan erabiliko diren argien ezaugarriak:

- Finkoak izango diren eta berezko iturria izango duten (argiteri normaletik kanpo) argi motak izango dira.
- Gutxienez ordu batean zehar iraungo dute.

- 1 lux.eko argia ziurtatu beharko dute.
- Tentsio nominalak %70ean huts egiten duenean aktibatuko dira.

2.2.4.3.2. Kearen aireztapena

Ez da kearen aireztapenerako sistemarik jarriko, sutearen arriskua baxua delako.

2.2.4.3.3. Suaren aurkako instalazioak

Eskuko alarmak:

25 metro maximoko distantzietara, eskuko alarmak jarriko dira, eta emergentzia irteera bakoitzaren alboetan sakagailu bana.

Su itzalgailuak:

Eraikinaren gunen desberdinetan su itzalgailuak jarri behar dira. Gela nagusian eta aldageletan, hautsezkoak, koadro elektrikoaren alboetan CO₂-zkoak eta egiturako edozein puntutik 15 metro maximoko distantziara, su itzalgailu bat egon behar da.

Ureztatzaileak eta ur jaurtitze automatiko sistema:

Suaren arrisku baxua dela eta, ez dira jarri behar.

2.2.4.3.4. Seinaletapena

Erabilera manualeko babes neurriak, emergentzia irteerak eta irteera normalak, seinalatuak egon behar dira.

Hauekin batera, emergentzia irteetaraino bidea seinalatzen duten seinale luminisizenteak ere egon behar dira.

Eta su itzalgailu bakoitzaren alboetan ere seinale bat egon behar da.

2.2.4.4. Suaren aurkako babes arauak

Eraikinak ondorengo UNE araudiak bete beharko ditu:

UNE 1363-1:2000/ UNE-EN 3-7:2004/ UNE 23500:2012/ UNE-EN 12845:2004/

UNE 23727:1990

3. KALITATE KONTROLA

3.1. Sarrera

2014ko urriaren 28-ko 209/2014 dekretuaren bidez, eraikinek jasan behar dituzten kalitate kontrolak arautzen dira. Bertan zein kontrol laborategian egin behar diren arautzen da. Bestetik CTE kodea ere bete beharko da.

Obra hasi baino lehen kalitate kontrol plana egin beharko da eta bertan, kontratatuko den entsegu laborategiarekin, kalitate kontrolak egingo dira.

Laborategiko entseguen txostenak jaso eta aztertu ondoren, aurredefinitutako kalitate maila minimoak betez emaitzen dokumentazioa bete beharko da.

Azkenik, “Obra amaierako ziurtagiria” Eskola Ofizialean aurkeztuko da, non, ziurtagiria betetzeko, “Kalitate kontrol liburua” aurkeztea derrigorrezkoa den. “Kalitate kontrol ziurtagiria” egindako kontrolen dokumentazio, emaitzak eta emandako ebazpenen dokumentu ofiziala izango da.

3.2. Kalitatea kontrolean aplikatu

Proiektua era egokian aurrera eramateko helburuarekin eta kalitate, segurtasun eta osasun kontrolak betez, materialak, obra elementuak eta instalazioak arautegi zehatzak jarraitu eta bete behar dituzte.

Proiektuan aplikatu diren arautegiak:

- Eraikuntza Kode Teknikoa (CTE)
 - Zarataren kontrako babesa (HR)
 - Osasungarritasuna (HS)
 - Suteen aurkako babesa (SI)
 - Erabileraren segurtasuna (SU)
 - Eraikin segurtasuna (SE)
 - Akzioak
 - Zimenduak
 - Altzairua
 - Fabrika

- Zura

- Eraikin-hormigoizko instrukzioa (EHE-08)
- Seismo-erresistente eraikitzearen araua (NCSE-02)
- Presioan dauden aparatuen araudia (RAP)
- Hotz industrialeko instalazioen eta planten segurtasun-araudia (RIF)
- Eraikuntzetan dagoen instalazio termikoen araudia (RITE)
- Tentsio baxuko araudi elektrotekniakoa (REBT)
- Suteen aurkako babeserako instalazioen araudia (RIPCI)
- Industria-guneetako suteen aurkako babeserako instalazioen araudia (RSCIEI)
- Eraikitzekeo produktuen eta elementuen klasifikazioa, suteen aurreko erreakzioaren eta erresistentziaren arabera
- Materialengan egin beharreko entsegu metodologiaren betetzearen UNE arauak

3.3. Kalitate kontrolerako baldintza orokorra

Osasun eta bizigarritasun baldintzak betetzeko Eraikuntza Ordenazioko azaroaren 5eko 38/1999 legea jarraitu da.

Horretarako CTE kodearen oinarriko baldintzen dokumentu desberdinak aztertu dira:

- Eraikinen segurtasuna (SE)
- Suteen kontrako segurtasuna (Si)
- Erabilerarako segurtasuna (SU)
- Higiene, osasun eta ingurumenaren babesa (HS)
- Zarataren kontrako babesa (HR)
- Energia efizientzia eta islapen termikoa (HE)

3.3.1. Produktu, elementu eta materialen adostasuna CTE kodearen arabera

Eraikuntzan erabiliko diren material guztiak europar legedia bete behar dute, eta ondorioz, denek CE zigilua eraman beharko dute.

Soilik CTE kodea betetzen duten ekipo eta makinariak erabiliko direnez, hauen kodearen konprobazioa egin beharko da. Eta hau herri administrazioaren baimena duen entitate batek egingo du.

3.3.2. Produktuaren baldintza

Eraikuntzarako erabiliko diren material, produktu, elementu, makina edota sistema guztiak ezaugarri minio batzuk bete behar dituzte eta maila minimoa betetzen dela ziurtatzeko kalitate kontrolak egingo dira. Kalitate kontrol guzti hauek baldintza agiri dokumentuan agertuko dira.

Bestetik, eraikinaren instalazioen kalitatea frogatzeko, zerbitzu eta froga egiaztapenak egin beharko zaie.

3.3.3. Lanak egiteko baldintzak

Lan baldintzen dokumentua obrako zuzendariak eta obra egitearen zuzendariak egin behar dute, eta zenbait atal aztertu behar dituzte:

- Material, makinaria eta elementu guztien harrera kontrola
- Obraren egite kontrola
- Amaierako kalitate kontrola

3.3.3.1. Material, makinaria eta elementu guztien harrera kontrola

Harrera kontrolean material, makinaria eta erabiliko diren elementu guztien kontrola egin behar da.

Horretarako, hornigaien dokumentazioaren kontrolak, kalitate zigiluen bidezko kontrolak eta saiakera bitarteko kontrolak bete beharko dira.

3.3.3.2. Obraren egite kontrola

Obrako zuzendariak, eraikuntzaren atal bakoitza aztertu eta bere onarpena eman beharko dio, kalitate kontrolak betetzen direla ziurtatuz.

Horretarako materialen, makinarien eta teknika desberdinen kalitatea aztertu beharko du. Eta honekin batera bete beharko diren legediak ere.

3.3.3.3. Amaierako kalitate kontrola

Obraren erdian eta obra guztiz bukatzerakoan lege eta zerbitzu frogak eta egiaztapenak egin behar dira. Horretaz aparte beste edozein kalitate kontrol ere gehitu zaizkio legediz bete behar diren minimoei.

3.3.4. Obraren kontrol dokumentazioa

Obran egindako kalitate kontrol guztien dokumentazioak, harrera kontrolak, eraikitze kontrolak eta amaiera kontrolak izan behar ditu.

Obran egindako kontrol guztien dokumentazioarekin batera, obrako produktuen dokumentazio eta mantendu eta erabilerak ere egon behar dira.

Behin obrak amaituta, zuzendariak kalitate kontrolen dokumentazioa eskumena duen herri administraziora edo eskolara eraman beharko du.

3.3.5. Obra amaierako ziurtagiria

Obrako zuzendariak, kalitate kontrolak bete direla, elementuei erabilpen egokia eman zaiela eta arauen arabera jokatu dela ziurtatuko du.

Obra amaierako ziurtagiriak zenbait dokumentu eduki behar ditu:

- Proiektuarekiko obran zehar eman diren eta obrako zuzendariak onartu dituen aldaketan dokumentua.
- Obraren egin diren kontrol guztien emaitzak.

3.4. Produktuen harrera baldintzak

3.4.1. Eraikuntzaren kode teknikoa (CTE)

3.4.1.1. Produktuen dokumentazio kontrola CTE

Obran sartzen diren produktu guztiak hornitzaileak emandako identifikazio dokumentuekin heldu behar dira. Dokumentazio hau eraikitzaileari emango zaio eta honek obrako zuzendariari.

Bertan, jatorria, hornikuntza eta etiketatze informazioa etorri behar da. Baita ere teknikoaren sinadura eta CE zigilua egon behar dira.

3.4.1.2. Kalitate ziurtagiri eta ebaluazio teknikoaren bidezko kontrola CTE

Hornitzaileak eraikitzaileari edo zuzendariari zenbait dokumentu eman behar dizkio:

- Kalitate guztien ziurtagiria eta kodeak arautzen dituen baldintzen ziurtagiria.
- Produktuen ebaluazio tekniko eta ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- Legez eskatu behar diren baimen administratiboak.
- Beharrezkoa denean, CE zigiluaren marka.

Obrako zuzendariak etortzen diren produktuak behar dituzten arauak betetzen dituela konprobatu eta onartu behar du.

3.4.1.3. Harrera kontrola azterketaren bidez CTE

Kode teknikoan ezartzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatzeko, batzuetan frogak edo entseguak egin behar dira.

Kontrol hauetan produktuek bete behar dituzten baldintzak zuzendariak arautzen ditu bete behar diren arauen bidez. Eta hauek bete ezean beraiek bota beharko dituzte produktuak atzera.

3.4.2. Eraikuntzarako produktuen zuzentaraua duten produktuak

DPC barnean dauden eraikuntzarako produktuak UEN EN araua, zein DITE araua zein CE zigilua edukiko dute.

CE zigilua:

- CE zigilua produktuaren zenbait ataletan egon daiteke:
 - Produktuan
 - Etiketa itsaskor batean
 - Bilgarrian
 - Bilgarriko etiketa batean
 - Produktuarekin datorren dokumentazioan
- Europar batasuna arautzen dituen lege eta baldintzak betez gero CE zigilua jartzea baieztatuko da.
- CE zigiluarekin batera, araututako dokumentazioa joan behar da.

3.4.2.1. Markaketa ezaugarriak

Produktu mota eta ezaugarrien arabera, markaketarik ez badago, harrera kontrola eta kalitate kontrola egin beharko zaio.

3.4.3. Eraikuntzarako produktuen zuzentaraua ez duten produktuak

Eraikuntzako harrera kontrolean zuzentadura ez duen produktu bat sartzen denean, CTE araua betetzen duela frogatu behar da eta horretarako kontrolak egin behar dira:

3.4.3.1. Hornitze dokumentuen kontrola

Beharrezkoak diren dokumentu guztiak daudela egiaztatu behar da, baita adostasun dokumentua ere.

3.4.3.2. Harrera kontrola entseguen bidez.

ENAC edo Autonomi erkidegoko entsegu laborategi egiaztatuak soilik egin dezakete lagin batetan entseiuak eta ondorioz ziurtagiriak eman.

Taula 14 Harrera control entsegu taula

Identifikazio dokumentazioa	<ul style="list-style-type: none"> ○ Jatorri dokumentazioa, hornitze eta etiketa jartze orria ○ Sinatutako orria, fabrikatzailearen berme ziurtagiria. 		
Bete behar diren ezaugarri tekniko minimoak	CE marka duten produktuak (1*)	Beharrezko Dokumentazioa	<ul style="list-style-type: none"> - CE markaren etiketa jartzea. - Fabrikatzaileak sinatutako Adostasun CE adierazpena Dokumentazio osagarria - Tipo hasierako entsegua, Jakinarazitako Organismo batek igorrita S.E.C.(3*) 3 baterako.
		Dokumentazio Osagarria	
	Araurako adostasun marka	Ekoizpen kontrol ziurtagiria. Organismo batek igorrita.	
	Araurako adostasun marka		
CE gabeko produktuak (2*)	Produktu Tradizionalak	Araurako adostasun marka (Arau zaharra)	
		Arauzko baldintza adostasun ziurtagiria(Homologatze ziurtagiri zena)	
	Produktu berritzaileak	Egokitasunaren ebaluazio teknikoa	Egokitasun teknikoaren dokumentua (DIT). Erabileraren egokitzapen dokumentua (DAU)
Beste dokumentuak	Laborategi batek egindako entseguen ziurtagiria		

3.4.4. Onartze eta ukapena

Produktuak onartuak izan daitezen CTE kodea, arauak eta hornitzaile eta erosleak adostutako ezaugarriak betetzen dituen dokumentazioa eduki behar du, bestela uko egingo da.

Dokumentazio guzti hau, kalitate kontrol liburuaren barnean joango da. Ukapenak ere.

Entsegu eta frogen analisietako emaitzak produktuen dokumentazioarekin bat ez datozenean, zuzendariak zuzentze neurriak hartu beharko ditu.

3.4.5. Kalitate kontrolaren aurrekontua

3.4.5.1. Zimendapena

Taula 15 Zimendapenaren aurrekontua

Kodea	Deskribapena	Neurketa	Prezioa/neurketa unitate (€/uds.)	Prezioa (€)
12.1	Ainguraketa onarpen entsegua. (unitate)	55	15	825
GUZTIRA				825

3.4.5.2. Altzairuzko egitura

Taula 16 Altzairuzko egituraren aurrekontua

Kodea	Deskribapena (unitate)	Neurketa	Prezioa/neurketa unitate (€/uds.)	Prezioa (€)
12.2	Soldadura loturen kordoen azterketa	1	138,28	138,28
12.3	Margoen azterketa	1	418	418
12.4	Estalduraren azterketa	1	41,55	41,55
12.5	Galbanizatuaren azterketa	1	39,00	39,00
12.6	Torloju loturen azterketa	1	365,00	365,00
GUZTIRA				1001,83

3.4.5.3. Motrailuak

Taula 17 Motrailuen aurrekontua

Kodea	Deskribapena (unitate)	Neurketa	Prezioa/neurketa unitate (€/uds.)	Prezioa (€)
12.7	Lagin azterketa	12	58,30	699,6
12.8	Sendotasun azterketa	12	63,25	759
12.9	Konpresio eta flexio azterketa	12	75,50	906
GUZTIRA				1468,20

3.4.5.4. Arotzeria

Taula 18 Arotzeriaren aurrekontua

Kodea	Deskribapena (unitate)	Neurketa	Prezioa/neurketa unitate (€/uds.)	Prezioa (€)
12.10	Airearen iragazkortasun azterketa.	1	325,20	325,20
12.11	Airearekiko erresistentzia azterketa	1	415,50	415,50
12.12	Hermetikotasun azterketa	1	385	385
GUZTIRA				1125,70

3.4.5.5. Saneamendu sistema

Taula 19 Saneamendu sistemaren aurrekontua

Kodea	Deskribapena (unitate)	Neurketa	Prezioa/neurketa unitate (€/uds.)	Prezioa (€)
12.13	Euri uren eta hondakin uren instalazioen hermetikotasun azterketa	1	102,50	102,50
GUZTIRA				102,50

3.4.5.6. Elektrizitate sistema

Taula 20 Elektrizitate sistema

Kodea	Deskribapena (unitate)	Neurketa	Prezioa/neurketa unitate (€/uds.)	Prezioa (€)
12.14	Instalazio elektrikoaren azterketa	1	72,70	72,70
GUZTIRA				72,70

3.5. Entseguak, analisiak eta frogak

Kalitate kontrol liburuan aztertu behar diren eta beraz kalitate kontrol plana gauzatu behar zaizkien produktuak:

- Altzairua
- Armadura pasiboak: Barrak
- Armadura pasiboak: Sareak
- Ateak
- Argiztapen instalazioa
- Estalkiak eta itxiturak
- Forjatuak
- Hormigoia
- Hormigoizko blokeak
- Ikerketa geoteknikoa
- Leihoak
- Margoak
- Motrailuak
- Saneamendu sarea (Hondakin eta euri sareak)
- Suaren aurkako instalazioak
- Zimendapena

4. ERAIKUNTZAN SORTZEN DIREN HONDAKINEN GESTIOA

4.1. Sarrera

Proiektua aurrera eramatean sortzen diren hondakinak gestionatu beharko dira. Lehentasuna emango zaie hondakin berrerabilgarri eta birziklapenari.

4.1.1. Hondakin kudeaketa araudia

- 1998ko apirilaren 21eko 10/1998 (L22/2011) legea, hondakin buruzko legea.
- 2002ko otsailaren 8ko MAM/304/2002 agindua, hondakin balorazio, ezabapen operazioak eta europar hondakin zerrenda azaltzen duena.
- 2007ko azaroaren 15eko 34/2007 legea, airearen kalitatea eta atmosfera babesaren buruzko legea.
- 2008ko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua, eraikuntza eta eraispentako hondakinaren produkzio eta kudeaketa erregulazio legea.
- 2009ko urtarrilaren 20ko erresoluzioa.
- 2012ko ekainaren 26an onartutako 112/2012 Dekretua.

4.2. Sortutako hondakinaren identifikazioa

Obran sortutako hondakinak Europako Hondakin Zerrendaren arabera identifikatu eta kudeatuko dira.

Eraikuntzan sortzen diren hondakinak MAM/304/2002 dokumentuaren arabera, bi motakoak izan daitezke:

- 1. Mailako R.C.D.-ak:
Azpiegitura lanetan sortutako hondakinak dira, hau da, hondeaketa prozesuetan lortu den lur eta material harritsu ez kutsakorrak.
- 2. Mailako R.C.D.-ak:
Eraikuntza, konponketa eta zerbitzu lanen ondorioz sortu diren arriskurik gabeko hondakinak dira.

Taula 21 I. mailako RCDak

1. MAILAKO RCDak	
1. HONDEAKETAKO LUR ETA HARRIAK	
17 05 04	17 05 03 kodean zehaztutako lur eta harri desberdinak
17 05 06	17 05 06 kodean zehaztutako lokatz eta drainatze desberdinak
17 05 08	17 05 07 kodean zehaztutako bide ferren balasto desberdinak

Taula 22 2. Mailako harri jatorria ez duten RCDak

2. MAILAKO RCDak	
RCD: HARRI JATORRIA EZ DUTENAK	
1. Asfaltoa	
17 03 02	17 03 01 kodean zehaztutako nahasketa bituminoso desberdinak
2. Egurra	
17 04 02	Egurra
3. Metalak	
17 04 01	Kobrea, brontzea, letoia
17 04 02	Aluminioa
17 04 03	Beruna
17 04 04	Zinka
17 04 05	Burdina eta altzairua
17 04 06	Eztainua
17 04 06	Metal nahastuak
17 04 11	17 04 10 kodean zehaztutako kable desberdinak
4. Papera	
20 01 01	Papela
5. Plastikoa	
17 02 03	Plastikoa
6. Beira	
17 02 02	Beira
7. Igeltsua	

17 08 02	17 8 01 kodean zehaztutako eraikuntzarako igeltsu material desberdinak
----------	--

Taula 23 2. Mailako harri jatorria duten RCDak

2.MAILAKO RCDak	
RCD: HARRI JATORRIA DUTENAK	
1. Area, Graba eta bestelako idorrak	
01 04 08	01 04 07 kodean zehaztutako graba eta harri txikitu desberdinak
01 04 09	Harea eta buztina
2. Hormigoia	
17 01 01	Hormigoia
3. Adreilu eta beste zeraikoak	
17 01 02	Adreiluak
17 01 03	Teilak eta material zeramikoak
17 01 07	17 01 06 kodean zehaztutako hormigoi, adreilu eta material zeramikoen nahasketa desberdinak
4. Harriak	
17 09 04	17 9 01, 02 eta 03 kodeetan zehaztutako RCD nahasketak desberdinak

Taula 24 2.Mailako Arriskutsuak diren RCDak

2. MAILAKO RCDak	
RCD: ARRISKUTSUAK	
1. Zakarrak	
20 02 01	Hondakin biodegradagarriak
20 03 01	Udal hondakinen nahasketak
2. Arriskutsuak	
17 01 06	Hormigoi, adreilu, teila eta material zeramikoen nahasketak substantzia arriskutsuekin.
17 02 04	Egurra, beira edo plastikoak substantzia arriskutsuekin nahastuak
17 03 01	Harrikatz alkaterna duten nahasketa bituminosoak
17 03 03	Harrikatz alkaterna eta alkaternadun produktuak

17 04 09	Hidrokarburoak, harrikatzen alkaterna eta beste SP dituzten kableak
17 04 10	Amiantoa duten isolamendu materialak
17 06 01	Substantzia arriskutsuak dituzten bestelako isolamendu materialak
17 06 03	Amiantoa duten eraikitze materialak
17 06 05	Merkurioa duten eraikitze eta eraispentze materialak
17 08 01	PCB duten eraikitze eta eraispentze materialak
17 09 01	SP duten bestelako eraikitze eta eraispentze materialak
17 09 02	17 06 01 eta 03 desberdinak diren isolamendu materialak
17 09 03	SP dituzten harri eta lurrak
17 09 04	RCD kode desberdinak nahastuta
17 05 05	Substantzia arriskutsuak dituzten drainatze lokatzak
17 05 07	Substantzia arriskutsuak dituzten bide ferreoaren balastoak
15 02 02	Adsorbatzailea kutsatuak (trapuak...)
13 02 05	Erabilitako olioak
08 01 11	Pila alkilanoak eta salinak
14 06 03	Pilak
15 01 10	Metalezko edo plastikozko ontziak
08 01 11	Margoen soberakinak
14 06 03	Disolbenteetako soberakinak
07 07 01	Desenkofranteetako soberakinak
15 01 11	Hutsik dauden aerosolak
16 06 01	Berunezko bateriak

4.3. Identifikaturiko hondakinen kudeaketa

Eraikuntza jasagarria lortzeko helburuarekin, materialak birziklatu eta ezabapen egokiaren kudeaketa sustatuko da..

4.3.1. Kudeaketarako materialen klasifikazio eta segregazioa

Hondakinen kudeaketa egokia egiteko, lehenik eta behin RD105/2008 araudiaren arabera, sortuko diren hondakinen aurreikuspen orokor bat egin behar da. Materialen berrerabilpena, birziklapena eta desagerpena errazteko helburuarekin.

4.4. Erregistroa

Hondakinen prozesuen jarraipen zehatza egiteko, hondakinen kudeaketaren erregistroa sortuko da.

Erregistroan hiru dokumentu agertu behar dira:

- Hondakinen entregan lortutako dokumentuen kopia.
- Hornitzaileen idatzizko dokumentazioa.
- Hondakin kudeaketaren kontrol dokumentuak.

Kronologikoki, dokumentuen jasotze datak gordeko dira. Eta dokumentazio guztia hiru urtez artxibaturik gordeko da.

4.5. Hondakinen kudeaketa aurrekontua

4.5.1. I.Maila RCD

Taula 25 I.mailako hondakinen gestioaren aurrekontua

Kodea	Deskribapena	Neurketa	Prezioa/neurketa unitate (€/uds.)	Prezioa (€)
11.1	Hondeaketa lanetatik ateratako hondakinak (m ³)	21300	3	63900
GUZTIRA				63900

4.5.2. II.Maila RCD

Taula 26 II.mailako hondakinen gestioaren aurrekontua

Kodea	Deskribapena (m ³)	Neurketa	Prezioa/neurketa unitate (€/uds.)	Prezioa (€)
11.2	Harri izaera duten materialak	365	7	2555
11.3	Harri izaera ez duten materialak	105	7	735
11.4	Potentzialki arriskutsuak	15	7	105
GUZTIRA				3395

Hondakinen gestio plana:**67.295€**

Bilbon, 2020ko urriaren 24an

Aitor Ibarrondo Ortega

Ingeniaritza Mekanikoan Graduatua